

**Asea Brown Boveri, S Aren Salmenta Baldintza Orokorak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemen Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

1. Orokortasunak.

1.1 Asea Brown Boveri, S.A. enpresak (aurrerantzean Saltzailea) zerbitzu eta sistemen osagaiak saldu eta hornitzeko lanak (aurrerantzean Horniketak) Salmenta Baldintza Orokor hauen menpe egongo dira, salmenta baldintza berezi gisa dagokion eskaintzan edo eskariaren onarpenean beste modu batez berariaz hitzartuta dagoenari dagokiona izan ezik. Hori dela eta, Saltzaileak berariaz onartzen ez dituen baldintzek ez dute baliorik izango, ondorio guztietarako.

1.2 Erosleari Baldintza Orokor hauek zein web orritan aurki ditzakeen esan edo eskaintza bat salmenta baldintza hauekin batera ematen zaion unetik bertatik, esan daiteke Saltzaileak Baldintza Orokor hauek ezagutzen dituela. Erosleak baldintza hauek ezagutzeko beste modu bat izan daiteke, aurretik Saltzailearekin izandako hartu-eman komertzialetan jasotzea. Kasu horietan guztietan esango dugu Erosleak, eskaera aurkezten duenerako, baldintzak onartu egiten dituela, ondorio guztietarako.

2. Jabego intelektualak eta industrialak.

Eskaintzaren jabego intelektualak edota industrialak, bere termino guztietan, eta eskaintzarekin batera ematen den informazio guztia, bai eta esaterako Horniketaren helburu diren ekipamendu eta haien elementu, plano, marrazki eta "software"ri buruzkoa ere, Saltzailearenak edo bere hornitzaileenak dira. Beraz, berariaz debekatuta dago Erosleak eskariari erantzutea ez den bestelako helburu batzuetarako erabiltzea. Halaber debekatuta dago informazio horren guztiaren zein zati baten kopia egitea eta hirugarrenei uztea, Saltzaileak horretarako baimena idatziz eman ez badu behintzat.

3. Eskariak formalizatzea eta horniketaren helmena

3.1 Horniketaren helmenak garbi azalduta egon beharko du Eroslearen eskarian. Eskaria eraginkorra izan dadin, Saltzaileak berariaz onartu beharko du, Horniketa aldi-aldi egiten delako alde bien onarpenaz baldintza hori kendu den kasuetan izan ezik.

3.2 Horniketaren barruan bakarrik eskariaren helburu diren ekipamenduak eta materialak sartzen dira, Saltzaileak onartu duen Eroslearen eskarian aparteko dokumentazio, informazio, euskarri edo zerbitzuren bat sartzen bada izan ezik.

3.3 Saltzailearen produktuen gainean katalogo, folleto, prospektu eta literatura teknikoan datozen pisu, neurri, ahalmen, xehetasun tekniko eta konfigurazioak orientazio modukoak dira eta ez dira lotesleak, Saltzaileak Eroslearen xehetasun itxi bat onartzen duen kasuetan izan ezik, baina kasu horietan eskariaren dokumentuetan agertu beharko da xehetasun hori.

3.4 Aldeetako batek eskariaren helmena, epeak edo bestelako baldintzak aldatzea proposatuko balu, beste aldeari jakinarazi beharko lioke. Jakinarazpena beti idatziz izango da, eta proposamenak balio izateko beste aldeak onartu beharko du. Aldaketak edota berrikuntzak ere izango dira dagokion eskaintza aurkezten den egunetik aurrera aplikagarri diren lege, erregelamendu eta araudietan egiten diren aldaketek eragindakoak; aldaketa edota berrikuntza horiek direla eta, Saltzaileak beste betebeharrak edo gastu gehiago izango balitu, Saltzaileak eskubidea izango luke hitzartutako baldintzak modu justuan egokitzeko, aldatutako lege edo arauak edo lege edo arau berriak izan dituen ondorioak ondo islatzeko.

4. Prezioak.

**Asea Brown Boveri, Saren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemien Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

4.1 Honiketaren prezioak garbiak dira eta ez dute BEZa eta bestelako zerga edo tasarik bere barne hartzen. Zergak edo tasak ondoren jasanaraziko dira fakturan, dagokien tasa aplikatuta. Eskarian aurkako klausula bat datorrenean izan ezik edo beraien harreman komertzialaren ondorioz Erosleak eta Saltzaileak hala adostu dutenean izan ezik, Horniketaren prezioetan ez dira enbalajeak sartuko, ez eta garraioa, kargak eta aseguruak ere, eta Saltzailearen fabrika kokatutako joko dira. Prezio horiek bakarrik eskaintzan zehaztutako material guztien eskarirako balioko dute.

4.2 Eskariaren aurreko eskaintzen kasuan, eskaintako prezioek hilabete baterako balioko dute eta hilabeteko epe horretan finkotzat joko dira eskaintzan zehaztutako ordainketa baldintzetan, eskaintako Horniketa moneta aldaketaren menpe edo aduanako tarifa eta tasen menpe inportatutako ekipamenduak badira izan ezik. Kasu horretan, eskaintzaren prezioa aldaketa horietara egokituko litzateke.

4.3 Eskaintzan adierazitako prezioak bertan zehaztutako ordainketa baldintzetarako direla ulertzen da. Ordainketa baldintza horiek aldatu egiten badira, eskaintzaren prezioak berrikusi egingo lirateke.

4.4 Saltzaileak eskaria onartu ondoren, Horniketaren prezioak finkotzat hartuko dira eta ezingo dira berrikusi. Halere, honako kasu hauetan prezioak berrikusi egingo dira:

- a) Erosleak eta Saltzaileak prezioak berrikustea berariaz adostu badute elkarrekin.
- b) Horniketa entragatzeko edo onartzeko epea atzeratu bada Erosleari zuzenean edo zeharka egotzi ahal zaion arazoirekin batengatik.
- c) Erosleak eskatuta horniketaren helmena aldatu bada, eta, oro har, Baldintza hauetan ezarritakoaren ondorioz aldaketaren bat gertatzen bada edo zerbait beritzen bada.
- d) Prezioak EUROA ez den beste moneta batean kotizatu badira, eskariaren egunetik mugarri bakoitzaren fakturaziorako hitzarmenean ezarritako egunetara bitartean moneta horrek EUROArekiko duen parekotasuna aldatu den heinean.
- e) Erosleak eskariaren helburu den Horniketa bere kabuz bertan behera utzi badu.

**5. Ordaintzeko baldintzak.**

1. Saltzailearen eskaintzan edo, halakorik ez balego, Saltzaileak onartutako Eroslearen eskarian Horniketa ordaintzeko baldintzak jasoko dira. Ordainketarako baldintzak aurretik zehaztuta ere egon daitezke, Eroslearen eta Saltzailearen artean adostutako etengabeko harreman komertzial baten baitan.

Ordainketak uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, eragiketa komertzialetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duenak, aurreikusten duenaren arabera egingo dira, betiere legean bertan ezarritako gehienezko epeak gainditu gabe.

5.2 Beste zerbait adostuta egon ezean, Saltzaileak dagozkion osagaiak, ekipamenduak edo sistemak entregatu eta hirurogei (60) egunetara egingo da ordainketa.

5.3 Ordainketa hitzartutako baldintzetan egingo da, Saltzailearen bankuko kontuan sartuta edo hitzartutako beste bide batez. Ordainketan ez da inolako kenkaririk aplikatuko, esaterako hitzartu gabeko atxikipenak, deskontuak, gastuak, zergak edo tasak, edo beste edozein kenkari.

5.4 Saltzailearekin zerikusirik ez duten arazoak direla eta, atzerapenik balego Horniketako produktuak entregatzean, muntatzean edo abian jartzean edo Horniketako produktuak beranduago jasoko balira, ordainketarako hitzartu diren baldintzek eta epeek berdin jarraituko lukete.

**Asea Brown Boveri, Saren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemen Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

5.5 Erosleak ordainketak berandu egingo balitu, Saltzaileari atzeratutako ordainketa horren berandutza interesak ordaindu beharko lizkioke, inolako errekerimendua egin beharrik gabe eta ordainketa epea amaitzen den unetik aurrera. Berandutza interes horiek kalkulatzeko, abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio. Interes horiek ordainduta ere, Erosleak gainontzeko ordainketak hitzartutako baldintzetan egin beharko ditu derrigorrez.

5.6 Erosleak hitzartutako ordainketak berandu egingo balitu, Saltzaileak, berak hala nahi badu, hitzartutako Horniketa bidaltzeari edo horniketarekin lotutako zerbitzuak egiteari utzi ahal izango lioke aldi baterako edo behin betiko. Hori alde batera utzita, Erosleari atzeratutako ordainketak egiteko eskatu ahal izango dio, bai eta, kasuan kasu, Horniketari edo horniketarekin lotutako zerbitzuak egiteari uztearen ondorioak konpentsatzeko aparteko ordainak erreklamatu ere.

5.7 Erosleak erreklamazio bat formulatzen badu ere, ez du eskubiderik izango hitzartutako ordainketak etetekeko edo ordainketa horietan deskonturik egiteko.

5.8 Eskariaren helburu diren ekipamenduak eta materialak hornitzerakoan saltzaileak haien jabariarekin gelditzeko eskubidea izango du Erosleak ordainketa betebeharrak guztiz bete arte, eta Eroslea behartuta dago laguntzera eta beharrezkoak edo komenigarriak diren neurriak hartzera, bai eta Saltzaileak ekipamendu eta material horien gainean duen jabegoa babesteko proposatuko dizkionak ere.

**6. Entrega epea eta baldintzak.**

6.1 Entrega epea eskaria onartzean adierazitako posizioan eta baldintzan jarritako materialerako dela ulertzen da. Materiala zein posiziotan entregatuko den zehazten ez bada, Horniketak Saltzailearen fabrika edo biltegian kokatuta egon beharko duela ulertuko da. Saltzailea entrega epea betetzera behartuta egon dadin, Saltzaileak ordainketa programa zorrotz bete beharko du, kasuan kasu.

6.2 Entrega epea aldatu egingo da honako kasu hauetan:

- a) Erosleak horniketa gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa dagokion epean entregatzen ez badu.
- b) Erosleak eskarian aldaketak egiteko eskatu eta Saltzaileak aldaketa horiek onartzen baditu, eta aldaketa horiek, Saltzailearen ustez, Horniketa entregatzeko epea luzatzea eskatzen badute.
- c) Horniketa gauzatzeko Erosleak edo bere azpikontratista batzuek lan batzuk egitea ezinbestekoa izanik lan horiek garaiz gauzatu ez badira.
- d) Erosleak eskariaren kontratuaren arabera dituen betebeharren bat bete ez badu, bereziki ordainketekin lotutako betebeharra.
- e) Saltzaileari zuzenean egotzi ezin zaion arrazoi batengatik atzerapenak gertatzen badira horniketaren osagai guztiak edo batzuk produzitzean edo erabilgarri jartzean. Hona hemen arrazoi horien adibide batzuk, baina ez bakarrik: Hornitzaileen, garraio eta zerbitzuen grebak, hirugarrenei hornitzeko sistemetan akatsak, garraio sistemetan akatsak, uholdeak, ekaitzak, istiluak, grebak, saltzailearen langileen edo bere azpikontratisten geldialdiak, sabotajeak, Saltzailearen lantegian ustekabeko geldialdiak, esaterako matxurek eragindakoak, eta, 15. klausulan ezartzen den moduan, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ezinbesteko kasuak.
- f) Erosleak eskariaren helburu den Horniketa bere kabuz bertan behera utzi badu.

**Asea Brown Boveri, SAren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemen Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

Aurreko kasuetan, Horniketa entregatzeko epea luzatu badaiteke ere, ordainketak programatuta zeuden moduan egingo dira.

6.3 Eskariaren helburu diren ekipamendu eta materialak berandu entregatzen badira eta atzerapen hori Saltzaileari zuzenean egotzi ahal bazaio, Erosleak Saltzailearekin aurretik hitzartutako zigorrak aplikatuko ditu. Zigor horiek izango dira atzerapenak eragindako kalteak ordaintzeko modu bakarra.

**7. Enbalajeak, garraioak.**

7.1 Eroslearekin aurretik adosten ez bada, Horniketaren helburu diren ekipamenduen eta materialen enbalajeak salmenta prezioari beste kostu bat gehitzea eskatuko du, eta ezin izango dira entregatu. Apirilaren 30eko 782/98 Errege Dekretuaren 18. artikulua eta Ontzi eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legeak diotenaren arabera, Erosleak, gure enbalajearen azken hartzailea den neurrian, ingurumenaren ikuspuntutik ahalik eta tratamendurik egokiena eman beharko dio enbalajeari (balorazioa, berrerabilera edo birziklatzea)

7.2 Eroslearekin aurretik beste zerbait adosten ez bada, garraioa, zamalanak barne, Eroslearen gain eta galorden egingo da; beraz, Saltzaileak ez du erantzungo Horniketarako izandako edozein kalte edo galerarengatik, Erosleak hartu beharko baitu bere gain arrisku horiek.

7.3 Ekipamenduak hornitzeko prest badaude edo, bestela, adostutako probak egiteko moduan badaude, eta Erosleak hartzen ez baditu edo ez du Saltzailearekin ezer adosten bere biltegian adostutako baldintzetan gorde ditzan, biltegian egoteak dakartzan gastu guztiak, Saltzailearen iritziz ebaluatu ondoren, Eroslearen kontura izango dira. Erosleak ere hartuko ditu bere gain biltegian dagoen materialak izan ditzakeen arrisku guztiak.

**8. Ikusapena eta harrera.**

8.1 Saltzailearen eskaintza edo Eroslearen eskarian aurkako klausula berariaz ezartzen ez bada, hornigaiak produzitzen diren bitartean egin beharreko ikusapenak eta saiakuntzak eta hornigaiak bidali aurretik egin behar zaizkion azken ikusapena Saltzaileak egin beharko ditu. Erosleak aparteko beste saiakuntzarik egitea nahi izango balu, eskarian zehaztu beharko luke, saiakuntzak zein araudi aplikagarriaren arabera egingo diren eta non eta zer erakundek egingo dituen azalduta. Aparteko saiakuntza horiek Saltzailearen onarpena izan beharko dute eta Eroslearen kontura egingo dira.

8.2 Behin Horniketako gaiak jasota, Erosleak 15 egun izango ditu jasotakoa egiaztatzeko. Egiaztapen horretan ikusiko du ea hornigaiak saltzaileari egotzi ahal zaion akats edota hutsuneren bat duten, eta, hala balitz, akats edota hutsune horien berri eman beharko lioke berehala Saltzaileari.

8.3 Horniketako gaiak Saltzaileari egotzi ahal zaizkion akatsak edota hutsuneak badituzte, Saltzaileak akats edota hutsune horiek kentzeko beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu.

8.4 8.1 atalean adierazten den moduan, Saltzaileak eta Erosleak elkarrekin adostutako baldintza eta egunetan onarpen probak pasatu beharko direla ezarri den kasuetan izan ezik, Horniketako gaiak jaso eta 15 egunetara Saltzaileak ez badu jasotzen egon daitezkeen akats edota hutsunen berri emateko Erosleak bidalitako jakinarazpen idatzia, Erosleak entregatutako Horniketa onartzen dituela ulertuko da, eta egun horretatik aurrera garantia epea hasiko da.

**Asea Brown Boveri, Saren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemien Horniketeta)**

**Madril, 2011ko otsaila**

8.5 Ondorio guztietarako, Erosleak Horniketako gaiak jaso dituela ulertuko da onarpen probak egitea adostu bada eta Saltzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezarritako epean proba horiek ez badira edo Erosleak Horniketako gaiak erabiltzen hasten bada.

**9. Materialak itzultzea. Erreklamazioak.**

9.1 Saltzaileak ez du inolaz ere onartuko materialak itzultzea aurretik Eroslearekin horren gainean ezer adostu ez badu. Erosleak materiala itzultzeko asmoa badauka, 15 egun izango ditu Horniketako gaiak jaso ondoren, Saltzaileari asmo horren berri emateko eta zergatik itzuli nahi duen justifikatzeko, bai eta, kasuan kasu, Saltzailearekin itzultzeko modua adosteko ere. Edozein modutan, Erosleak erreklamazioak idatziz eta frogak erakutsita egin beharko dizkio Saltzaileari.

9.2 Materialaren prezioa berreskuratzeko eta materiala aldatu edo konpontzeko, materiala itzuli edo Saltzailearen instalazioetara bidaliko balira, beti garraio gastuak ordainduta egin beharko litzateke.

9.3. Eskarian akats bat egon delako edo Saltzailearekin zerikusia ez duen beste arrazoi batengatik, jasotako hornigaia itzuliko balitz, balio garbiaren %15 gehituko litzaioke materialari berrikuspen eta egokitze lanen kostuen zati bat moduan.

9.4 Saltzaileak ez du onartuko materialak itzultzea jatorrizko enbalajea ireki bada, edo materialak erabili edo beste ekipamendu edo instalazio batzuetan muntatu badira, edo Saltzailea ez den beste inork desmuntatu baditu.

9.5 Eskarirako bereziki diseinatu edo fabrikatu diren produktuak itzultzea ere ez du onartuko saltzaileak.

**10. Bermeak.**

10.1 Saltzailearen eskaintzan edo Eroslearen eskarian aurkako klausula berariaz ezartzen ez bada, Saltzaileak bermatu egingo du berak hornitutako produktuek onartzen diren egunetik hasi eta urtebeteko epean ez dutela akatsik izango ez materialari dagokionez ez fabrikazioari edo mihiztaketari dagokionez, berdin dela onarpena nola egin den, berariaz adierazita (Saltzaileak eta Erosleak adostutako onarpen probak gainditzea eta hornigaia onartzen dela dioen idatzia bidaltzea) edo isilbidez (Erosleari hornigaia bidali eta 15 egunetara Saltzaileak ez badu jasotzen egon daitezkeen akats edota hutsunen berri emateko Erosleak bidalitako jakinarazpen idatzia). Halaber bermatuko du Horniketako gaia bidaltzeko prest dagoela jakinarazi eta 18 hilabetera ez dela horrelakorik gertatuko. Betiere, bi kasu horietatik lehenen gertatzen dena beramatuko du.

10.2 10.1 atalean adierazitako bermeak esan nahi du materialean akatsak daudelako edo fabrikazioan edo mihiztaketan akatsak egon direlako akastuntzat jotako elementuak konpondu edo aldatu egingo direla (Saltzaileak berak nahi duena). Konponketak Saltzailearen tailerretan egindakoak izango dira, eta Eroslearen kontura izango dira material akastuna Saltzailearen tailerretara igorri eta ondoren Kontsumitzaileari entregatzeko beharrezkoak diren desmuntatze lanak, paketatzeak, zamalanak, garraioak, aduanak, tasak, etab.. Halere, Eroslearekin adostu ahal izango da elementu akastuna Eroslearen instalazioetan konpontzea eta ordezkatzeta.

10.3 Elementu akastun bat konpontzeak edo aldatzeak ez du esan nahi Horniketeta osoaren berme epearen hasiera aldatzen denik. Kasu horietan ere berme epea 10.1 atalean adierazitakoa izango da. Halere, konpondutako edo ordezkaturako elementuak urtebeteko bermea izango du konpondu edo ordezkatzeko denetik aurrera.

10.4 10.2 atalean adierazitako bermean sartzen den ordezkapena premiazkoa bada eta, beraz, lehenbailehen egin behar bada, Erosleak hitz ematen du pieza edo elementu berria jaso eta gehienez 7

**Asea Brown Boveri, SAren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemien Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

eguneko epean pieza edo elementu akastuna itzuliko duela. Ordezkatutako pieza itzultzen ez badu, bidalitako pieza fakturatu egingo zaio Erosleari.

10.5 Saltzaileak ez du inolaz ere erantzungo bere erakundeak ez diren pertsonen egindako konponketengatik.

10.6 Bermean ez dira sartuko ekipamenduak erabiltzeak dakartzan ohiko higaduraren ondorioz egon daitezkeen kalteak edo akatsak. Gainera, bermean ez dira sartuko zaintze edo mantentze lanak gaizki egiteagatik, biltegitate edo manipulazio oker edo zabarrengatik, gehiegi erabiltzeagatik, likido eta gas desegokiak eta presio edo fluxu desegokiak erabiltzeagatik eta muntaketa okerrak egiteagatik eta hornidura elektrikoaren kalitatea aldatzeagatik (tentsioa, maiztasuna, asaldurak) sortutako kalte eta akatsak, ez eta Saltzailearen baimenik izan gabe Horniketaren egindako aldaketengatik, eta ondoren produktuaren jarraibide teknikoari kasu egin gabe egindako edo aldatutako instalazioengatik sortutakoak ere. Oro har ez da bermean sartuko Saltzaileari egotzi ezin zaion edozein akats edo kalte. Horiek denek gainera berme iraungitzea ekarriko dute.

10.7 Era berean, bermea iraungita dagoela joko da Hornigaiak Saltzailearen langileen laguntzarekin martxan jarriko direla ezarri bada eta azkenean laguntza hori gabe egiten bada, edo, matxura kasuan, kalteak arintzeko neuririk hartzen ez bada

10.8 Klausula honetako aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, Saltzaileak ez du inoiz erantzungo 10.1 atalean adierazitako epea hasten denetik hasita sei hilabete baino gehiagoko denbora tartean Horniketaren helburu diren ekipamendu edo sistemetan gertatzen diren akatsengatik.

#### 11. Erantzukizunaren mugak

Hitzarmenean ezarritako betebeharrak betetzeagatik edo ez betetzeagatik egon daitezkeen erreklamazioak direla eta, Saltzaileak eta bere agente, langile, azpikontratista eta hornitzaileek dituzten erantzukizunak ez dira guztira hitzarmeneko oinarritzko prezioa baino handiagoak izango eta bertan ez dira inoiz sartuko irabaziak izateari uzteagatik eta diru sarrerak, produkzioa edo erabilera galtzeagatik izandako kalteak, ez eta kapital kostuak, jarduerarik gabe egoteak, atzerapenek eta Eroslearen bezeroek egindako erreklamazioek eragindako kostuak, ordezko energiaren kostuak ere. Halaber ez dira sartuko aurreikusten diren aurrezpenetan izandako galerak, ustiapen kostuetan izandako igoerak eta zeharka edo zerbaiten ondorioz izandako kalte bereziak eta edozein motatako galerak.

Klausula honetan Saltzailearen erantzukizunari egiten zaion mugapena beste edozein hitzarmenetan datorren eta beraren aurka doan edo berarekin bat ez datorren beste edozein mugapenaren gainetik egongo da, bigarren mugapen horrek Saltzailearen erantzukizuna gehiago mugatzen badu izan ezik.

#### 12. Esportazioko muga.

Erosleak onartzen du Saltzaileak hornitutako produktuak esportazioaren kontrolari buruzko tokiko edo nazioarteko hornidura eta arauen menpe egon daitezkeela eta, eskumena duten aginteez esportatzeko edo berresportatzeko baimenik eman gabe, ezin direla hornigaiak saldu, ez alokatu eta ez transferitu ere, ez eta adostutakoa ez den beste helbururako erabili ere. Eroslea hornidura eta araudi horiek betetzeaz arduratuko da. Hornitutako produktuak ezin dira erabili, ez zuzenean ez zeharka, arma kimiko, biologiko edo nuklearren diseinu, produkzio, erabilera edo biltegitatearekin lotutako helburuetarako, ez eta arma horien garrriorako ere. Hornigaiak ezin dira erabili aplikazio militarretarako, ez eta aplikazio nuklearretarako ere, Saltzaileak horretarako baimena idatziz ematen ez badu behintzat.

**Asea Brown Boveri, Saren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemien Horniketara)**

**Madril, 2011ko otsaila**

**13. Ezarri beharreko zuzenbidea. Gainean dituen Jurisdikzioa eta organo Eskumendunak.**

Baldintza hauek Espainiako legeen menpe egongo dira eta, beraz, haien arabera interpretatuko dira.

Bi aldeek dagokien beste edozein eskumen berariaz baztertzen dute eta Madril hiriko Auzitegi eta Epaitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren menpe jartzen dira.

**14. Laneko segurtasuna eta Koordinazioa**

14.1 Eroslea izango da laneko segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzearen arduradun bakarra. Hortaz, honako hauen ardura izango du: (i) kontratatutako zerbitzuak gauzatuko diren lan lekuaren berezko arriskuen gaineko informazioa; (ii) larrialdi egoera batean aplikatu behar diren neurriak; (iii) kasuan kasu, proiektu batean batera parte hartzen duten kontratuen eta kontratisten arteko koordinazioa; (iv) langileei kontsulta egiteko, parte hartzeko eta prestakuntza jasotzeko aukera, eta, oro har, (v) Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen aplikazioaren ondorioz laneko segurtasun eta higiearen alorrean bere langileek zein bere kontratisten langileek izan ditzaketen beste betebeharrak batzuk. Aurrekoa alde batera utzita, Saltzailearen barne araudiarekin bat datozen prebentzio arauak ere aplikatuko dira. Dena dela, Eroslearen prebentzio arauak zorrotzagoak badira, horiek beteko dira.

14.2 Saltzaileak ahalmena dauka Legearen 21. artikulua ezartzen duenaren arabera Zerbitzuak gauzatzeari uzteko, uste badu langileen segurtasuna bermatuta ez dagoela. Bestalde, atzerapenik gertatzen bada epea neurritz luzatu ahal izango du, eta galera edo kalterik badu, esaterako orduak galtzea, langileen desplazamenduak, dietak, ekipamenduak eta tresnak ibilge uztea, Erosleak kalte edo galera horien ordaina emango dio, beti ere klausula honetan aurreikusitako betebeharrak eta erantzukizunekin eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legean jasotakoekin lotuta.

**15. Ezinbesteko arrazoiak**

15.1 Ezinbesteko arrazoi batengatik Saltzaileak hitzartutako betebeharrak erantzuteko ezinduta balego, guztiz edo zati batean, bete ezin diren betebeharrak etenda geldituko lirateke zentzuzko denbora batean, betiere egoeraren arabera, eta Saltzaileak ez luke inolako erantzukizun izango horretan.

15.2 Ezinbesteko arrazoiak izango da Saltzaileak izatea arrazoizkoa den kontrolatik haratago dagoen arrazoi edo egoera bat, besteak beste, eta ez horiek bakarrik, hornitzaileen, garraio eta zerbitzuen grebak, hirugarrenei hornitzeko sistemetan akatsak, garraio sistemetan akatsak, uholdeak, ekaitzak, istiluak, grebak, saltzailearen langileen edo bere azpikontratisten geldialdiak, sabotajeak, bere gobernuan edo agentzian izandako edozein motatako ekintzak, omisio edo esku-hartze, Saltzailearen lantegian ustekabeko geldialdiak, esaterako matxurek eragindakoak, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako ezinbesteko kasuak, betiere Saltzailearen jarduerari zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

15.3 Ezinbesteko arrazoi bat dagoenean, Saltzaileak Erosleari jakinaraziko dio ahalik eta lasterren, ezinbesteko arrazoiak zein den eta gutxi gorabehera zenbat iraungo duen azalduta. Halaber jakinaraziko dio ezinbesteko arrazoiak desagertzen denean, arrazoi hori dela-eta etendako obligazioak betetzeko behar duen denbora azalduta. Ezinbesteko arrazoi bat egoteak eskubidea emango dio Saltzaileari entrega epea behar bestez luzatzeko.

15.4 Ezinbesteko Arrazoiak hiru hilabete (3) baino gehiago iraungo balu, aldeek elkarri aholkua emango liekete bidezko konponbidea eta egoerarekin bat datorrena aurkitzen saiatzeko, kontuan izanda Saltzailearen zailtasunak. Hurrengo hogeita hamar (30) egunetan konponbidea aurkitu ezingo balitz, Saltzaileak eskaria indar gabe utziko luke inolako erantzukizunik gabe, eta Erosleari idatziz jakinaraziko lioke

**Asea Brown Boveri, S Aren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemen Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

**16. Konfidentzialtasuna**

Saltzaileak eta Erosleak elkarri pasatutako dokumentu, datu, material eta informazioa kondifentzialtasunez erabili beharko dituzte, eta ezin izango dizkiote hirugarren bati eman, ez eta Horniketa betetzea eta garatzea ez den beste helburu baterako erabili ere, beste aldeak horretarako erabili ahal dela idatziz onartzen ez badu behintzat.

Goian esandakoa esanda ere, Saltzaileak Erosleraren eta Horniketaren oinarrizko datuak eman ahal izango ditu erreferentzia komertzial gisa.

**17. Indargabetzea**

17.1 Alde bietako edozeinek indargabetu ahal izango du eskaria beste aldeak eskaria modu nabarmenean betetzen ez badu. Horretarako, beste aldeari idatziz jakinarazi baino ez du egin beharko.

Eskaria modu nabarmenean betetzen ez dela esateko, eskaria betetzen ez duen Aldeari aurretik idatziz jakinarazi eta hark jakinarazpenaren ondorengo hogeita hamar (30) egunetan egoerari irtenbidea emateko modurik ez ematea gertatu behar da.

Era berean, honakoak izango dira eskaria indar gabe uzteko arrazoiak:

- Alde bietako edozein desegitea edota likidatzea, bakoitza kide deneko Taldearen barruan egindako bat-egite eragiketen barruan gertatzen bada izan ezik.
- Alde bietako edozeinek garatzen duen jarduerari uztea.
- Ezinbesteko Arrazoa den gertakari batek jarraitzea / Hiru (3) hilabete baino gehiagotan jarduera etenda egotea, alde bietako batek 15. klausulan aipatzen den lehen jakinarazpen idatzia, onartzen duen aldeak bidalitakoa alegia, jasotzen duen egunetik hasita.
- Baldintza hauetako beste klausuletan eskaria indarrrik gabe uzteko berariaz adierazitako beste edozein arrazoi.

17.2 Saltzaileari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik eskaria indar gabe utzi behar den unean, Erosleak honakoa egingo du:

- Saltzaileari jada entregatu diren ekipamendu eta materialen balioa ordainduko dio, eskarian ezarritako prezioen arabera.
- Erosleak honetarako eskubidea izango du, baina ez du derrigorrez bete beharko:
  - Entregatzeke dauden ekipamendu eta materialak erosteko, entregatzen diren unean haien zenbatekoa ordainduta, eta
  - Saltzaileak bere hornitzaileei edota kontratistei igorritako eskarietan subrogatzeko eskubidea izango du.
- Saltzaileak eskaria ez betetzearen ondorioz izan ditzakeen kalte eta galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du, Baldintza hauetako 11. klausulan ezarritako mugekin.

17.3 Erosleari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik eskaria indar gabe utzi behar den unean, Saltzaileak honakoak eskuratzeko eskubidea izango du:

- Saltzaileari jada entregatu diren ekipamendu eta materialen balioa, eskarian ezarritako prezioen arabera.
- Bere hornitzaileengandik edota azpikontralistengandik derrigorrez jaso behar dituen eta entregatzeke dauden ekipamendu eta materialen zenbatekoa, behin Erosleari entregatuta.



**Asea Brown Boveri, S Aren Salmenta Baldintza Orokorrak  
(Osagai, Ekipamendu eta Sistemen Horniketa)**

**Madril, 2011ko otsaila**

- Saltzaileak bere hornitzaileei edota azpikontratistei igorritako eskariak bertan behera uzteagatik ordaindu beharreko zenbatekoa, eskariak bertan behera uztea posible bada.
- Erosleak hitzartutakoa ez betetzearen ondorioz izan ditzakeen beste kalte eta galera batzuen ordaina.

17.4 Ezinbesteko arrazoi batengatik eskaria indar gabe utzi behar den unean, Saltzaileak honakoak eskuratzeko eskubidea izango du:

- Saltzaileari jada entregatu diren ekipamendu eta materialen balioa, eskarian ezarritako prezioen arabera.
- Bere hornitzaileengandik edota azpikontratistengandik derrigorrez jaso behar dituen eta entregatzeke dauden ekipamendu eta materialen zenbatekoa, behin Erosleari entregatuta.
- Saltzaileak bere hornitzaileei edota azpikontratistei igorritako eskariak bertan behera uzteagatik ordaindu beharreko zenbatekoa, eskariak bertan behera uztea posible bada.